



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA  
**BIZKAIA**

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2005eko ekainaren 22ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.  
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.  
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.  
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.  
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOTTI and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.  
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.  
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

#### **EZ DA BERTARATU. ARRAZOIA AZALDUTA**

EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

XABIER PAYA jn.

#### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko ekainaren hogeita biko arratsaldeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- 2005-05-19ko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, bi mila eta bosteko maiatzaren hemeretzian egindako ohiko bileraren akta onetsi du.

**2º.- PLAN OROKORRA ZATI BATEAN ALDATZEA, 29. ARLOARI ("VEGA DE TXAKURZULO") ETA INDUSTRIA-ERABILERA ARAUTZEN DUEN ARAUARI BURUZ:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko ekainaren 21ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 411/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko ekainaren 15ean hartu zuen 79 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek Francisco Javier Cardenal Abaitua jaunak 2005-6-2an aurkeztutako idazkiaren (erregistro zk.: 3.834) edukiaren berri eman dute; horren bitartez zera eskatu zuen, besteak beste: Leioako Udalak HAPOa aldatzeko espedientea has dezala, 29. arloan ("Vega de Txakurzulo") hirugarren sektoreko erabileren instalazioa kokatu ahal izateko, berekin etxebizitzarekin bateraezinak diren industria-erabilerak dakartzala gaur egun plangintzan ezarritakoa baino portzentaje handiagoan. Zehazki, normalean autoen salmenta eta banaketako instalazioen ondoan egon ohi diren ibilgailuen konponketako tailerrak erabili ahal izango lirateke, saldu osteko zerbitzu gisa, gaur egun ezarrita dauden mugak izan gabe.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Udalaren osoko bilkurak hasieran onestea Plangintzaren Aldaketa, espediente honen xede dena.

- Udalaren osoko bilkurak hasieran onetsitakoan, agiria hilabeteko epean azaltzea jendaurrean, iragarkiak argitaratuz BAOn eta egunkarietan, gai honetan indarrean dauden legeetan zehaztutakoa betetzearen (Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 41. artikulua, 1976ko apirilaren 9ko testu bat egina).

Aurreko paragrafoan adierazitako epean alegaziorik aurkezten ez bada, edo Udal Zerbitzu Teknikoek aldaketaren bat proposatzeko txostenik egiten ez badute, espedientea behin-behinean onetsi dela ulertuko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Sailera bidaltzeko, hark behin betiko onetsi dezan.

**EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

**OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Plan Orokorraren Zati baten Aldaketa, 29. arloari ("Vega de Txakurzulo") eta industria-erabilera arautzen duen arauari buruzkoa, hasieran onestea erabaki du, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**3º.- PSE-EE-PSOE UDAL TALDEAK HAINBAT UDAL ORGANOTAN DUEN ORDEZKARITZA ALDATZEA:**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko maiatzaren 24an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 355/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko maiatzaren 17an hartutako 52. irizpenak honakoa dio:

Udal talde horren ordezkariak Informazio Batzordeetan duten ordezkaritza aldatzeko proposamena adierazi dute; horrenbestez, ordezkaritza honela geratuko da:



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

#### **BIZKAIA**

- Bilerak astearteetan dituzten Batzordeak: Titularrak: Nieves Hurtado Urriaga andrea eta José Manuel Toledo Cañamero jauna; Ordezkoak: Susana González Rómulo andrea eta Mercedes Angulo Ordozgoiti andrea:
  - Barne Araubideko Informazio Batzordea.
  - Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordea.
  - Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordea.
  
- Bilerak asteazkenetan dituzten Batzordeak: Titularrak: Susana González Rómulo andrea eta Mercedes Angulo Ordozgoiti andrea; Ordezkoak: Nieves Hurtado Urriaga andrea eta José Manuel Toledo Cañamero jauna:
  - Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordea.
  - Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia.
  - Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordea.

**Barne Araubideko Informazio Batzordea** bi izendapen horien jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

#### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, onetsi egin du PSOEren Udal Taldeak aurkeztutako proposamena, Udalaren Informazio Batzordetan bere ordezkariak izendatzekoa, Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpenaren arabera.

**4º.- 2004KO EKITALDIKO KONTU NAGUSI BATERATUA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko ekainaren 21ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 434/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia 2005eko ekainaren 15ean hartutako 92. irizpenak honakoa dio:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia honek, aurtengo maiatzaren 10ean egindako bileran, 72. zk.dun Irizpenaren bitartez 2004ko ekitaldiko Kontu Nagusiari aldeko irizpena eman dio. Kontu horretan biltzen dira Udalaren kontuen egoerak, baita Euskararen Erakundea eta Soinu-Atadia Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoenak ere.

Kontua jendaurrean azaldu da, 2005/05/19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta gero, eta erakusgai egon da hamabost laneguneko epean. Epe hori ekainaren 6an amaitutakoan, ez da aurkeztu erreklamazio, eragozpen edo oharrik.

Kontua Udalbatzaren Osoko Bilkuran aurkeztu behar da, uztailaren 31 baino lehen onetsi ahal izateko, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluan xedatutakoaren arabera.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA  
**BIZKAIA**

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** egokitzen jo du Kontu Nagusi bateratuaren aldeko irizpena berriro ematea eta hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan kontu hori onartzeari buruzko puntua sartzea.

#### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, onetsi egin du 2004ko ekitaldiko Kontu Nagusi bateratua, Udalaren kontuen egoerak eta Euskararen Erakundea eta Soinu-Atadia Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoenak ere biltzen dituenak.

**5º.- 2005EKO IRAILEAN INDARREAN JARRI BEHAR DIREN ORDAINARAZPENAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZAK ALDATZEA**: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko ekainaren 21ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 435/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko ekainaren 15ean hartutako 93. irizpenak honakoa dio:

Zerga eta Tasak arautzen dituzten Zerga Ordenantzen aldaketa espedienteak bakarrean egin ohi da, aurrekontu-urtearekin bat etor daitezkeen, eta urtero urtarrilaren 1ean indarrean sar daitezkeen.

Dena dela, zerbitzu batzuk –Udal Euskaltegia, Kontserbatorioa eta Sakoneta Kiroldegiak ematen dituen zerbitzu batzuk– irailetik ekainera ematen dira. Horregatik, irailean indarrean jar daitezkeen Zerga Ordenantzen aldaketa onartzea bidezkoa da.

Horrek Zerga Ordenantzen aldaketa tarte bitan proposatzera behartzen du:

- I) Ekaineko edo uztaileko Osoko Bilkuran onartuko direnak, tarifa horiek irailean indarrean jartzeko.
- II) Urriko edo azaroko Osoko Bilkuran onartuko direnak, gainontzeko udal ordainarazpenetarako, zerga ordenantzak 2006ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko.

Aztertu da Udal Zerbitzu Teknikoen txostena, hitzez hitz hau dioena:

Gaur egun ondoko zerbitzu hauen tarifak aldatu behar dira:

#### **SAKONETA KIROLDEGIA**

Sakoneta Kiroldegian ematen diren zerbitzuetako batzuk irailetik ekainera ematen dira, eta horien tarifak ondoren zehaztuko dira. Proposatutako tarifek %3,2ko igoera izango dute, hau da, Autonomia Erkidegoko KPIak 2004an izan duen igoera. (KPIaren portzentaje hori erabiltzen da normalean zerga ordenantzak aldatzeko).



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Honakoak dira tarifak:

## 12. EPIGRAFEA.—

### Sakoneta Kiroldegiaren zerbitzua erabiltzeagatiko tasa 2005/2006 ikasturtea

<b>12. Muskulazio-gimnasiaren zerbitzua</b>	
Abonatuak, hiruhilekoko ordainketa .....	51,90
Abonatu gabeak, hiruhilekoko ordainketa .....	78,90
<b>13. Igeritokien erabilera</b>	
<b>B) Igeriketa ikastaroak</b>	
Igeriketa berezia (3 hilabeteko ikastaroa)	
Abonatuak .....	45,00
Abonatu gabeak .....	70,00
Haurtxoak (3 hilabeteko ikastaroa)	
Abonatuak .....	57,20
Abonatu gabeak .....	76,20
4 urteko haurrentzako egokitzapena (2 hilabeteko ikastaroa)	
Abonatuak .....	45,00
Abonatu gabeak .....	70,00
4 urteko haurrentzako hastapena (2 hilabeteko ikastaroa)	
Abonatuak .....	39,50
Abonatu gabeak .....	70,00
Helduentzako hastapen eta hobekuntza (hilabeteko ikastaroa)	
Abonatuak .....	20,10
Abonatu gabeak .....	35,00
<b>C) Igeriketa eskola:</b>	
Haurrak, astean hiru egunetan, hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	24,00
Abonatu gabeak .....	33,00
Haurrak, astean bi egunetan, hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	20,10
Abonatu gabeak .....	27,60
Helduak, astean hiru egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	53,70
Abonatu gabeak .....	71,70
Helduak, astean bi egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	35,80
Abonatu gabeak .....	53,70
<b>D) Waterpolo eskola:</b>	
Haurrak, astean bi egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	20,10
Abonatu gabeak .....	27,60
<b>E) Igeriketa ikastaroak, taldeka</b>	
Haurrak .....	31,80
<b>14. Mantenu-gimnasiako eta Aerobiceko jarduerak</b>	
Astean hiru egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	53,80
Abonatu gabeak .....	71,70



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Astean bi egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	35,80
Abonatu gabeak .....	53,70
<b>15. Dantza eta Gimnasia Erritmikoko jarduerak</b>	
Astean hiru egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	27,00
Abonatu gabeak .....	33,70
Astean bi egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	22,60
Abonatu gabeak .....	28,10
<b>16. Hirugarren Adinekoentzako Gimnasiako jarduera</b>	
Doakoa .....	0,00
<b>17. Langabetuentzako Gimnasiako jarduera</b>	
(Aldez aurretik INEMeko txartela aurkeztu behar da)	
Doakoa .....	0,00
<b>18. Kirol Eskoletako jarduera</b>	
<b>Mahai-tenisa eta esku-pilota</b>	
Astean hiru egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	24,00
Abonatu gabeak .....	33,00
<b>Saskibaloia, Patinajea eta Pala</b>	
Astean bi egunetan eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	20,10
Abonatu gabeak .....	27,60
<b>Emakumeen Futbol Eskola</b>	
Abonatuak .....	60,10
Abonatu gabeak .....	82,50
<b>Atezain eskola (2 hilabete)</b>	
Abonatuak .....	63,50
Abonatu gabeak .....	63,50
<b>19. Arte Martzialetako jarduera</b>	
Haurrak (5 eta 14 urte bitartekoak), hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	35,80
Abonatu gabeak .....	43,00
Helduak eta hiruhilekoko ordainketa:	
Abonatuak .....	44,90
Abonatu gabeak .....	62,70
<b>20. Esgrima jarduera:</b>	
Abonatuak (hiruhilekoko ordainketa) .....	34,30
Abonatu gabeak (hiruhilekoko ordainketa) .....	41,20
<b>21. Areto-dantzak (hiruhilekoko ordainketa)</b>	
Astean egun batean (2 ordu)	
Abonatuak .....	34,50
Abonatu gabeak .....	51,90
Astean egun bat (ordu erdi)	
Abonatuak .....	28,80
Abonatu gabeak.....	43,20



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

<b>22. Bulderra erabiltzea</b>	
B) Eskalada ikastaroak	
Hiruhilekoko ordainketa	
Abonatuak .....	25,60
Abonatu gabeak .....	32,90
<b>24. Spinning-a</b>	
Astean hiru egunetan (hilabete bat)	
Abonatuak .....	21,30
Abonatu gabeak .....	27,00
Astean bi egunetan (hilabete bat)	
Abonatuak .....	43,20
<b>25. Tai-chi</b>	
Astean bi egunetan (hilabete bat)	
Abonatuak .....	39,60
Abonatu gabeak .....	46,20

**SOINU-ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOA**

Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren Batza Artezkariak 2004ko azaroaren 15ean onetsi zituen 2005/2006 ekitaldian zerbitzuak emateagatik tasen tarifak. Tarifa horiek ondoren zehaztuko dira:

**Prezio publikoak, ikastaro osoa batera ordaintzen denean 2005/2006**

Irakaskuntzarako Gaiak .....	17,90
Hastapen matrikula. II Maila .....	35,22
1. eta 2. Moduluak. II Maila: matrikula .....	70,44
Sendotua 3. eta 4. II Maila: matrikula .....	88,05
3. eta 4. Moduluak. II Maila: matrikula .....	70,44
5. eta 6. Moduluak. II Maila: matrikula .....	52,83
Moduluak III Maila: matrikula .....	52,83
LOGSE ertaina, 1. Zikloa: matrikula .....	121,51
LOGSE ertaina, 2. Zikloa: matrikula .....	141,76
LOGSE ertaina, 3. Zikloa: matrikula .....	182,26

**Ikastaro osoagatik sortzen diren prezio publikoak, hilero ordaintzekoak (10 hilerokotan)  
2005/2006**

(*) Hastapen ikastaroa. II Maila .....	182,30
(*) 1. eta 2. Moduluak. II Maila .....	426,40
Sendotua 3. eta 4. II Maila .....	690,00
(*) 3. eta 4. Moduluak, II Maila .....	436,20
(*) 5. eta 6. Moduluak, II Maila .....	345,00
(*) Moduluak, III Maila .....	345,00
LOGSE ertaina, 1. Zikloa .....	1074,20
LOGSE ertaina, 2. Zikloa .....	1261,30
LOGSE ertaina, 3. Zikloa .....	1575,70



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA  
**BIZKAIA**

## UDAL EUSKALTEGIA

### Moduluak

Bi orduko modulua ..... 357,52

Bost orduko modulua..... 446,90

Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 17.1 artikuluan eta Toki Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/89 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, hartzen den erabakia eta Zerga Ordenantza aldatuen testua jendaurrean azaldu beharko dira udalaren iragarki-oholean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 30 eguneko epean, herritarrek espedienteak aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Ondore horretarako proposatu da hasieran eta behin betiko onestea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Bozketan PPko Xabier Olabarrieta Amaiz jauna eta PPko Iñaki Gamero Delgado jauna abstenitu egin dira, PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andrea eta PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andrea eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jauna abstenitu egin dira. Ondorioz, **Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** aldeko irizpena eman dio zerga ordenantzen aldaketari buruz aurkeztutako proposamenari. Era berean, egoki iritzi dio osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarraren gai-zerrendan ordenantzen aldaketari buruzko puntua sartzeari.

### EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Udal Euskaltegiaren, Kontserbatorioaren eta Sakoneta Kiroldegiaren zerbitzuengatiko ordainarazpenak (2005eko irailean indarrean sartuko direnak) arautzeko Zerga Ordenantzen aldaketa onestea erabaki du, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**5.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005.05.13TIK 2005.06.17RA** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

## **7.- PRESAZKO MOZIOAK**

Alderdi Popularra Taldeak aurkeztutako premiazko mozio bat dago. Aurkeztu nahi duzu, Xabier.

***XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK honako erabaki-proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko:***

### **ERABAKI-PROPOSAMENA**

*Etxeko indarkeria gure gizarteko arazorik handienetako bat da. Egunero milaka emakumek jasaten dute tortura fisiko eta psikologiko hori, eta zoritxarrez, hainbat eta hainbat aldiz, azkenean erasotzaileak bere biktima erail egiten du.*

*Botere publikoek eginbehar bat dute: gizarteko gaitz hau desagerraraztera bideratutako neurri guztiak egituratu eta abian jarri. Aurrerapen teknologikoak tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen segurtasunaren zerbitzura jarri behar dira, erasotzaileen aurrean euren osotasun fisikoa bermatzeko.*

*Gaur egun, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen segurtasuna epaileen baimenen eta poliziaren kontrolaren pean nabarmen hobetzen duten gailu elektroniko eta informatikoak daude. Gailu horiei esker jakin daiteke urruntzeko agindua hautsi den ala ez; beraz, gertakari horien aurrean ekiteko ahalmena handiagoa izaten da. Horregatik, Erkidegoko Administrazioari eskatu nahi diogu gailu horiek eskura ditzala, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek erabili ahal izateko, agintari judizialak hori zehazten duenean, horrela beteko baita Eusko Legebiltzarraren erabakia.*

*Genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko funtsezko zutabeetako bat da informazioa, zalantzarik gabe. Emakume askok, informazio gabeziaren ondorioz horrelako indarkeria jasaten dute, eurek ere jakin gabe; ez dakite administrazioak arlo judizialean, psikologikoan, laguntzazkoan edo lan arloan bermeak eskaintzen dizkiela; ez dakite nora jo behar duten, administrazio asko ari baitira horretan; edo ez dakite poliziak eta epaileek ekiteko zein protokolo jartzen den abian, salaketa aurkeztu ondoren.*

*Horregatik uste dugu Udalak udalerrri honetan informazio-gida bat argitaratu eta postontzietan banatu beharko lukeela hainbat gauza azaltzeko, besteak beste etxeko tratu txarra zer den, zein den bere tipologia, indarkeria hori jasanez gero zein urrats egin behar den, nora jo behar den, salaketa aurkeztu eta gero zein protokolo jartzen den abian, une horretan administrazioek arlo juridikoan, psikologikoan, laguntzazkoan edo lan arloan nolako babesak eskaintzen duten, etab. Horren guztiaren helburua da emakumeak informazio objektiboa eta benetakoa edukitzea, eta beharrekotzat joz gero, jasaten ari den egoera salatzea.*

### **ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIAK BIHURTU DIZKIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DITZAN**

***LEHENENGOA.** Leioako udalak agindeia egingo dio Eusko Jaurlaritzari, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eudel-ekin koordinatuta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen osotasun fisikoa zaintzeko babes-gailu elektroniko eta informatikoak hornitzeko beharrezko neurriak har ditzan, Eusko Legebiltzarrak erabaki zuen bezala.*

***BIGARRENA.** Leioako Udalak erabaki du gure udalerrian etxeko indarkeriaren alderdi guztiei buruzko informazioa eta azalpena emateko gida bat argitaratzea eta postontzietan banatzea.*



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du mozioa Barne Araubideko Batzordearen bitartez aurkeztu zuela. Mozioa horretan erabaki-proposamen bat agertzen da, erakundeek har ditzaketen neurriei buruz, etxeko indarkeriaren, genero-indarkeriaren arloan gure eskura dauden neurriak hartzeko helburuz. Proposamen horrek zati bi ditu: batean adostu zen Udalean gai horri buruzko komunikazio-mekanismoak ezartzen ari zirela; hortaz, proposamena ontzat eman zuten. Proposamenaren beste zatian zera eskatu zuten: Eusko Jaurlaritzari eta beste hainbat erakunderi –bereziki Eusko Jaurlaritzari– Eusko Legebiltzarrak neurri telematiko horiei buruz lehendik hartutako erabakia gauzatzeko eskatzea. Proposamen hori Batzordean ukatu zen, eta haien ustez Osoko Bilkurak gai horri buruzko iritzia ematea interesgarria denez, are gehiago Eusko Jaurlaritza eratzeaz dagoen une honetan, bada, haien ustez interesgarria da Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzea babes-gailu elektronikoak hornitzeko beharrezko neurriak har ditzala, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen bezala, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen osotasun fisikoa zaintzen laguntzeko.

Jarraian, Alkate jaunak premiaren botazioa egiteko agindu du.

#### **PREMIARI BURUZKO BOTAZIOA**

PP-ko lau bozeramaileek aldeko bederatzi boto eman dituzte, PSE- EE- PSOE-koek beste lau, eta bileran egon den EB-Berdeak-eko zinegotziak beste bat; EAJ-PNV-ko hamar ordezkariak aurkako botoak eman dituzte, eta EA-koak ere aurkakoak. Horregatik guztiagatik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak **ukatuko du Leioako Udaleko Alderdi Popularra Udal Taldeak etxeko indarkeriari buruz aurkeztutako mozioa.**

#### **BOTOAREN AZALPENA:**

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Argitu nahi du ez dutela mozioa bera gaitzetsi nahi, aipatzen den agiria Barne Araubideko Batzordean eztabaidatu zelako. Batzorde horretan gai horri buruzko azalpenak eman ziren, eta horregatik adierazi zuten gai hori Eusko Legebiltzarrean argitu behar dela, eta ez Udalean; ildo horretatik, Osoko Bilkura honetan aintzat ez hartzea erabaki dute.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, mozioaren premiaren aldeko botoa eman du beti egin duen bezala, bere ustez gizartean eragina duten gai guztiei buruzko jarrera hartu behar delako, eta Leioa Euskadiren zati denez, egiten diren edo egiten ez diren gauza guztietatik kanpo ezin da egon.

Halaber adierazi du haiek ez omen dutela aginterik Eusko Jaurlaritzari Eusko Legebiltzarraren ebazpenak bete ditzala eskatzeko; horrekin ados dago; dena dela, uste du gogora ekarri behar dela legeak bete behar direla, eta batzuetan Gobernuari eskatu behar zaiela legeok betetzeko. Hortaz, uste du ez dela gehiegizkoa Leioak bere Udalaren bitartez tamalez gaurkotasun osokoak diren gaiei buruzko kezka agertzea.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, haien ohitura premiako mozioen aldeko botoa ematea da; edonola ere; gaur ez eztabaidatzea erabaki den arren, eskatu du gai hori Informazio Batzordean berriro sartzeko eta eztabaidatzeko, ez daudelako bakarrik Eusko Jaurlaritzak onartutako neurriak; Espainiako Parlamentuan onartutako genero-indarkeriari buruzko Lege Integralaren ondorioz ere hainbat neurri dago, eta Udalerrien Espainiako Federazioaren bitartez Udalekin hitzarmenak egiten dira neurri-babesak hartzeko. Bere ustez, horri guztiari buruz nahiz Alderdi Popularraren



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

proposamenari buruz hitz egin behar da, baita horri buruzko erabakiak hartu ere. Halaber, adierazi du bere ustez zuzena dela egokitzat jotzen duguna Eusko Jaurlaritzari eskatzea, oso gai serioa delako, eta eskumena erakunde horrena delako; baina gaiak denoi eragiten digu, eta baliteke Udalari gehiago eragitea, hurbilen dagoen erakundea delako.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

PSE-EE-PSOeko ordezkariari adierazi dio gai horiei buruz Informazio Batzordean luze hitz egin zela, baina ez dagoela eragozpenik gai horiek beharrezkotzat jotzen den arte lantzeko. Susana González Rómulo andreak adierazi du horri buruzko erabakiak hartu beharko direla.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, mozio horren bitartez gure Udalaren eskaria eratzear dagoen Eusko Jaurlaritzaren mahai gainean egon zedila nahi zuten, horrela, eratu eta gero kontuan hartzeko.

Udal Taldeak duen jarrerari buruz, hau da, Osoko Bilkuran aurkezten diren mozioen premia ukatzeari buruz, adierazi du balitekeela aurkeztutako proposamenekin ados egotea edo ez, baina bere ustez norik bere proposamenaren alde luzeago eta zabalago egiteko aukera egon beharko litzateke. Ildo horretatik, ez dago ados mozioaren premia ukatzearekin, horrela gaiak sakonago eztabaidatzeko bideak ixten direlako. Jokabide hori behin eta berriro gertatzen ari da, eta ez dago ados horrekin.

## **8.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Honako galdera hauek egin dira:

### **1.- EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:**

A) Galdera: Adierazi du Euskal Kirol Zaleak taldeak bidalitako gonbidapen bat eman diotela. Horri buruz jakin nahi du nola gauzatuko den ekitaldia.

### **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du bilera amaitu ondoren azaltzeko asmoa zuela, eta honi buruzkoa dela: jaien egitarauaren barruan ekainaren 24an, 20,30ean, Bulevarrean, Euskal Kirol Zaleak taldeak antolatutako erakustaldia egongo da. Talde horren jarduera euskal herri kirolaren sustapena da, eta ekitaldia, urtero legez, Dow Chemical-ek finantzatzen du. Amaitutakoan, Kiroldegiko Erabilera anitzeko Gelan luncha egingo da, eta bertan Dow Chemical-ek Leioako kirol-taldeei urterik urte ematen dizkien diru-laguntzak banatuko ditu.

### **2.- PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:**

Galdera: Adierazi duenez, atzo egindako Barne Araubideko Batzordearen bileran Saharari buruzko adierazpen bat aurkeztu zitzairen. Saharar herriarekiko elkartasuneko erakundeen estatuko federazioak bermatzen du adierazpen hori, eta hasieran esan zietenez, asmoa Osoko Bilkura honetara ekartzea zen, onartzeko; horregatik, gai horren egoera zein den jakin nahi izan du.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi duenez, hasieran aurreikusitako egutegiaren arabera uztaileko Osoko Bilkuran aztertuko zen; Alderdi Politiko guztiekin adostutako mozioa dela adierazi du; baina bere ustez, Talde Politiko bakoitzak bere Alderdi Politikoarekin aztertuko zuela uste zuenez, agian Osoko Bilkura honetan aztertzeko goizegi izango litzateke. Adierazi du mozio hori bidali diola Estatuko Sahararen Taldeen arteko Koordinatzaileak, EAJ-PNVko Legebiltzarkide izandako Txomin Aurrekoetxea jaunak. Pertsona hori ezaguna da Sahararako bidaiak egiten zirenetik, eta hark esan dio Estatu osoan Erakundeekin eta Alderdi Politikoekin adostutako mozioa dela, baina ez da osoko bilkura honetan sartu adierazitako arrazoiengatik.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du bere Talde Politikoak ez duela arazorik gaurko osoko bilkuran aztertzeko, haiek jada erabakia hartu dute-eta.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du Alderdi Sozialistak esan diola uztaileko Osoko Bilkuran aztertzeko; hortaz, datorren Osoko Bilkuran sartuko da.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi duenez, Osoko Bilkura amaitu eta gero, 21etan, Kultur Leioako Auditoriumaren sarreran koktel bat egitea aurreikusita dago. Horretara gonbidatuta daude Udalbatzako kide guztiak, Idazkaria eta Osoko bilkuran laguntzen duten langile teknikoak nahiz laguntzaileak. Adierazi du hasieran asmoa zela Udalbatzako kideen topaketa ez ezik "Casa Abierta" erakunde ordezkaritzaren harrera izatea, Leioak erakunde horrekin batera jarduten baitu Dominikar Errepublikan garapenerako lankidetzako egitarau batean. Zoritxarrez, ordea, hori ezinezkoa izan da, euren herritik ateratzeko behar duten bisatua ez dutelako jaso. Horri buruz esan du berak, Alkatea eta EUDEL-eko burua den aldetik, hainbat gutun bidali zituela haiek etortzeko baimena eskatzeko; halaber, PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak gestioak egin ditu Atzerri Arazoetako Ministerioarekin, baina ezin izan da ezer egin, beharrezko baimenak egiteko epe laburra zegoelako. Hortaz, bi aukera egon dira: bata, gutxi barru Juan Radanés jaunak, "Casa Abierta" GKEko buruak, Marcial jaunak, begirale batek, San Francisco de Macroix-eko Begiraleak, ama bik eta haur bik eta "Casa Abierta" taldeko beste pertsonaren batek Udallerri honetara etortzea izan dezatela; eta hori ezinezkoa bada, bestea: bidaia honetarako bidalitako dirua erabiltzea Dominikar Errepublikan egiten ari den proiektuan.

**EAKo Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:**

Sortu den egoera horri buruz, hau da, Dominikar Errepublikak Udallerri honetara etortzeko bisatu egokia eman ez izanari buruz, Udalaren eta Alderdi guztien izenean kexa-idazki bat bidaltzea, eta era berean eskatzea haiek gutxi barru gurekin egoteko oztupoak ken ditzatela.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:**

Adierazi du arazoa ez dela izan Dominikar Errepublikako agintariena, baizik eta Espainiak Santo Domingon duen Kotsulatuarena, hark ez baititu eman bisatu egokiak, antza denez Herri horretako biztanleak Europak Estatuan sartzeko eskakizunen politika zorrotzagoa aplikatu delako. Horregatik, Ernesto A. Trigueros Santa Coloma jaunaren iradokizunari jaramon eginez, Udalaren izenean Espainiak Santo Domingon duen Enbaxadara idazki bat bidaliko da. Horren bidez eskatuko zaie behar diren bisatuak eman ditzatela Santo domingo Oeste udalerriko ordezkariek gure Udalerrira etorkizun hurbilean etorri ahal izateko.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Amaitzeko, alderdi guztietako Zinegotziak gonbidatu ditu ekainaren 25ean (larunbata), Dominikar jaiaren egunean, Dominikar Errepublikarako fondoak biltzeko tonbolan txartelak saltzera.

Eta gaueko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE  
ALKATEA,

IDAZKARIA,